



Alberto Elósegui

Normalizaziorako haziak ereiten

Kontseiluak Donostiako euskaltzale guztiei dei egin die "Hizkuntza eskubideak! Denon konpromisoa" izeneko kanpainarekin bat egin dezaten. Auzoetan lan taldeak sortzen ari dira.

Asteazkenean, hilak 10, aurkeztu zuen Euskararen Gizarte Erakunde-en Kontseiluak "Hizkuntza eskubideak! Denon konpromisoa" ekimena Donostian. Aurkezpena Goikoa jauregian egin zuten, euskalgintzako hainbat eragileren aurrean.

Kontseiluak urtarrilean iragarri zuen "Hizkuntza eskubideak! Denon konpromisoa" kanpaina. Ekimenak gizarte eragileek eta norbanakoek, euskararen normali-

zazioaren bidean, konpromisoak hartzea du helburu. Era berean, alderdi politikoe-kin eta sindikatuekin akordio sozio-politikoak lortu nahi du Kontseiluak, normalizazioaren moteltzeari eta euskararen aurka-ko erasoei aurre egiteko, alegia. Akordio hau Euskal Herri mailan landuko dute.

Urtarriletik, beraz, lan taldeak sortzen ari dira, herriz herri, ekimena aurrera eramateko. Taldeok gizarte eragileen eta norbanakoen konpromisoak biltzen ahaleginduko dira. Orain arte, 45 herritan sortu

dira taldeak, eta beste askotan egunotan osatzen ari dira. Donostia da, hain zuzen, orain taldeak martxan jartzen ari den herri edo hiri horietako bat.

Gurean, Euskarak Batzen elkartearekin aritu da lanean Kontseilua. Donostiako zenbait talde hartzen ditu Euskarak Batzen-ek: Bagera, Euskal Herrian Euskaraz, AEK, Urrats euskaltegia... Euskarak Batzenek lan guztia bere gain har ez dezan, euskaltzale eta talde gehiagorengana jo du Kontseiluak. "Jende gehiago erakarri

Auzo guztietan irtagiria ezagutarazi nahi du Kontseiluak

nahi dugu, indar gehiago batzeko. Euskal-tegi guztiak, ikastolak eta lan egiteko prets dauden norbanako guztiak ongi etorriak izango dira", adierazi digu Kontseiluko teknikari Zigor Etxeburuak altzatarak.

Auzoka

Donostian, lan taldeak auzoka osatzeko asmoa azaldu digu Etxeburuak: *"Donostia handiegia da lanari osotasunean heltzeko; hortaz, egokiagoa da lana auzoka banatzea"*. Orain arte, Amara Berrin eta Egian sortu dira taldeak, eta Altzan bidean dago.

Etxeburuaren ustez, auzo batzuetan errazagoa izango da helburuak lortzea, euskararen aldeko kontzientzia handiagoa da eta: *"Dena dela, auzo guztietan ez ditugu zailtasun handiko konpromiso hartzaileak bilatuko. Hasieran, auzo guztietan, 'Bai Euskarari' ziurtagiria duen taberna, jatetxe edo elkarteren bat egon dadin bermatu nahi dugu, jendeak konpromisoaren erakusle den ziurtagiria ezagutu dezan"*.

Lan talde hauen eta Kontseiluaren arteko koordinazioaz Euskarak Batzen arduratuko da; bi elkarrekin bilera egingo dute hilean behin, eta Batzen-ek irizpideak helaraziko dizkie auzoetako taldeei.

'Bai Euskarari' ziurtagiria

Esan bezala, auzoetako taldeek bi arlotan lan egingo dute; gizarte eragileenean eta norbanakoenean.

Norbanakoei dagokienez, konpromisoen zerrrenda osatzen aritu da orain arte Kontseilua. Hurrengo eginkizuna taldeek herritarren zerrrenda osatzea eta haiengana jotzea izango da. Lehenik pertsona ezagunengana joko dute, besteentzako erreferentzia izan daitezkeenengana, alegia. Ondoren, hiru motatako norbanakoak bilatuko dituzte. Batetik, euskaraz bizitzeko urratsa egin dutenak, konpromiso berriak har ditzaten. Beste-



tik, euskaltegietan hasi eta gero euskal duntze prozesua utzitakoak. Azkenik, urrats hori ere eman ez dutenak.

Gizarte eragileei dagokienez, hiru esparrutan lan egitea proposatu du Kontseilua: jatetxeak eta tabernak, kirola eta aisialdia, eta lantegiak. Ekainera bitartean, auzoetan, konpromisoa hartzeko eta 'Bai Euskarari' ziurtagiria eskuratzeko prest dauden bosna eragile lortu nahi dituzte aipatutako esparruetan. Zigor Etxeburuak dioenez, *"ziurtagiria ahalik eta herri eta auzo gehienetara hedatu nahi dugu; ziurtagiria orain arte egon ez den tokietan agertzea nahi dugu. Lehen une honetan, zerbait egingarria planteatzen ari gara, ondoren etorriko denaren oinarria. Aurrerago, noski, eragile gehiagorengana heltzea dugu helburu"*.

Bidea eraikitzen

Altzatarraren hitzetan, *"ahaleginak neurtu behar dira, ez baitugu suziariaren erregai guztia orain erre nahi. Kontua ez da bat-batean helburu guztiak lortzea. Prozesu kontziente bat nahi dugu, jendea euskaraz bizitzeko gauza gehiago egin ditzakeela kontura dadin"*.

Ekainean, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak ekimenaren emaitzak aurkeztuko ditu, Euskal Herriko futbol estadio batean egitekoa den jaialdian. Konpromisoa hartutako jendea elkartuko da

Estrategia hirukoitza

Urtarrilean aurkeztu zuen Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak "Hizkuntza Eskubideak! Denon Konpromisoa" kanpaina komunikabideen aurrean. Ekimenak "Bai Euskarari" akordioaren bidez lortutako konpromisoak zabaltzea eta norbanakoak kontzientziatzea du helburu nagusi. Estrategiak hiru zutabe izango ditu.

Batetik, enpresekin eta elkarrekin "Bai Euskarari" akordioaren bidez hasitako bideari bultzada emango diote.

Bestetik, akordio sozio-politikoak indartuko dute, alderdi eta sindikatuekin bilerak eginez, normalizazio prozesuaren moteltzeari eta euskararen aurkako erasoei aurre egiteko.

Berrikuntzarik nabarmenena, ordea, hirugarren zutabea da: norbanakoen konpromisoa. Herritarrek euskararen normalizazioaren aldeko konpromisoak hartzea da hirugarren zutabe honen oinarria. Horretarako, konpromisoen zerrrenda egin du Kontseiluak.

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK! DENON KONPROMISOA

Amara Berrin, Egian eta Altzan lanean ari dira dagoeneko

bertan: erakundeak, enpresak, norbanakoak...

Dena dela, ekimena ez da ekainean bukatuko. Izan ere, gerora ere lanean jarraituko du Kontseiluak. Euskaltzale guztien laguntza beharko du horretarako, konpromiso gehiago lortzeko eta euskararen normalizazioaren bidea eraikitzeko.



Herritarren konpromisoak

Kanpaina honetan, Kontseiluak 29 konpromiso zerrendatu ditu, herritar guztiengana zuzendutakoak. Norbanakoek egun zein konpromiso betetzen duten eta aurrerantzean zeintzuk hartuko dituzten esango diete herriko edo auzoko dinamizatzaileei. Kontseiluak norbanako hauekin harremana izan nahi du eta nortzuk diren eta zein konpromiso hartu duten jakin. Iñaki Lasa Kontseiluararen Ildo Politiko-Instituzionalaren arduradunak dioenez, "helburua ez da konpromisoak betetzen dituzten edo ez kontrolatzea, betetzeko bidean izan dituzten zailtasunen berri izatea baizik".

- 1- Euskara ikasiko dut.
- 2- Neure euskara maila hobetuko dut.
- 3- Euskara erabiliko dut (tabernetan, koadrilan, saltokietan, etxean, elkarteetan, lanean...).
- 4- Lehen hitza euskaraz egingo dut edo zein erakunde, elkarte edo enpresatan.
- 5- Telefonoz ere lehen hitza euskaraz egingo dut.
- 6- Telefono erantzungailuko lehen hitza euskaraz izango da.
- 7- Lagunei mezuak euskaraz bidaliko dizkiet sakeleko telefonotik eta ordenagailutik.

8- Euskaldun gisa identifikatuko nauen zerbait eramango dut.

9- Seme-alabak D ereduan eskolaratuko ditut.

10- Kide naizen elkarte, talde eta abar guztietan, euskararen presentzia bermatuko dut.

11- Idazkietan eta elkarrizketetan euskarazko toponimoak eta kale izenak erabiliko ditut.

12- Aukeran, ikasketak euskaraz egingo ditut.

13- Azterketak eta lanak euskaraz egingo ditut.

14- Literatura unibertsaleko liburu bat irakurri behar badut, euskarazko bertsioa irakurriko dut.

15- Euskal kulturaren ekoizpenen eta euskarazko produktuen jatorrizko bertsioa erosiko eta lehenetsiko dut.

16- Euskarazko hedabideak kontsumituko ditut (egunkariak, iratiak, webguneak, aldizkariak, telebistak...).

17- Euskal prentsako harpidetzaren bat egingo dut.

18- Pelikulak euskaratzen badira, euskarazko bertsioa hautatuko dut.

19- Euskaraz dauden programa informa-

tikoak lehenetsiko ditut.

20- Euskarazko zerbitzua ematen duten, normalizazioan abiatu diren edo 'Bai Euskarari' ziurtagiria duten enpresak lehenetsiko ditut.

21- Aseguru-polizak; etxeko administrazioaren aktak eta dokumentuak, eta gas, argindar eta ur hornitzaileen kontratuak eta agiriak euskaraz jasotzeko eskaria egingo dut.

22- Fakturak euskaraz bidaltzea eskatuko dut.

23- Fakturak erdara hutsez jasoz gero, ez ditut ordainduko.

24- Aukeran, etiketa euskaraz duten produktuak aukeratuko ditut.

25- Euskaraz ez dauden agiriak ez ditut sinatuko.

26- Kontratuak eta nominak euskaraz eskatuko ditut.

27- Administrazio publikoaren aurrean euskara erabiliko dut.

28- Justizia administrazioan ez dut itzultzaile onartuko.

29- Neure inguruan ikusten ditudan hizkuntza eskubideen urraketan berri emango diot Behatokiari (www.behatokia.org edo 902 194332).